

Kontzeptuak.**"Luzera-unitateen arteko erlazioa"**

Luzera-unitateek sistema hamartar bat osatzen dute; hau da, unitate bakoitza txikiagoa den aurrekoa baino 10 aldiz handiagoa da, eta handiagoa den hurrengoa baino 10 aldiz txikiagoa.

Unitate batetik beste handiago batera pasatzeko zatiketa egin behar dugu.




:10	:10	:10	:10	:10	:10	:10
Km	hm	dam	m	dm	cm	mm
x 10	x 10	x 10	x 10	x 10	x 10	x 10

Unitate batetik beste txikiago batera pasatzeko biderkatu egin behar dugu.


Unitate desberdinetan adierazitako neurriak konparatu eta horien arteko eragiketak ebatzi nahi baditugu, lehenik, unitate berera bihurtu behar ditugu.

- **Neurri bat unitate handiago batean adierazteko**, zenbakia 10ez zatitu behar duzu unitate batetik bestera bitarteko tarteen kopurua bezainbat aldiz.



Adibidez: $7.000 \text{ m} = 7.000 : 100 = 70 \text{ hm}$

- **Neurri bat unitate txikiago batean adierazteko**, zenbakia 10ez bidertu behar duzu, unitate batetik bestera bitarteko tarteen kopurua bezainbat aldiz.



Adibidez: $26 \text{ m} = 26 \times 1.000 = 26.000 \text{ mm}$